

BILBO EUSKAL METROPOLIA, HIRI-EREMU ERAKARGARRIA



I. Bilboren eraldaketa

Problematika

Nola pasatu da Bilbo krisian zen hiri industrial izatetik mundu mailako metropoli moderno eta erakargarri izatera?

1 Guggenheim efektua




1980ko hamarkadako krisialdiaren ondotik, Bilboko hiria eraldatu eta garatu zen. Fenomeno horri "Guggheheim efektua" erraten zaio.

Jakinazazu

Mundu mailako tokiak erdietsi zuen Bilbok 1997an Guggenheim Bilbao Museoa eraiki zenean. Potentzia industrialia izatetik urbanismoaren eredu izatera igaro zen (...) Urbanism Awards sarien 2018ko Europako Hiri Onenaren saria irabazi du.

2024 <https://www.visitbilbao.es>

2 Bilboko hiriaren erakargarritasuna



Bizkaia Talent erakunde publikoa da. Ekonomiaren garatzea goi mailako profesionalak erakarritu du helburu. Grafikoan Euskadi eta Europaren arteko datu konparatiboak ageri dira ELGaren eta beste erakunde ofizial batzuen balorazioaren arabera.

*Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea

Bilbao world dressing capital 2014

3 Bilbo, zerbitzu-hiri bihurtua



④ Bilboko hiriaren eraldaketa

XX. mendearen bukaeran, industria birmoldaketaren ondorioz, Bilboko ekonomiaren aldaketa izugarria izan da. Gaur egun, hiriak bere dinamismoa berreskuratu du eta zerbitzu-hiri bihurtu da. Bilbo turismo helmuga garrantzitsua da.

Bilbo bere industria egitura aldatzen joan da eta hiriko hainbat eremu nagusi zaharberritu ditu. (...) Itsasadarraren berreskuratze prozesuari esker (...) Bilbo eta bertako biztanleak ibaiko arteriari begira bizi dira eta hau dela eta, itsasadarreko alde bietan hiri proiekturik garrantzitsuenak eraiki dira, non munduko artista eta arkitekto onenen eraikin eta lanak ikus daitezkeen (...) aisia, kirol eta kultura ekintza ugari gozatzeko aukera ematen dutenak.

Bilboren eraldaketaren estrategia proiektu hau osatzeko, hainbat azpiegitura bermatu dira: zubi berriak, metroa, aireportua eta tranbia (holako asko arkitekto garrantzitsuak diseinatu daude (Norman Foster, Santiago Calatrava...). Bilbo eta haren auzoak inguruko eta nazioarteko eremuko hainbat lurralderekin lotura itzela izateko mugikortasun sare bikaina osatzea lortu dute.

2024 www.bilbaoturismo.net

▶ Bilboko eraldaketa liluragarria



Airetik hartu argazkien konparaketa. Ezkerraldean, 1945eko argazkian Euskaldunak ontziolak ageri dira (gaur egun auditorium bilakatuak); eskuinaldean, aldiz, Guggenheim museoa 2022an.

2024 geo.euskadi.eus

Xerka ezazu!

1. Zergatik erraten zaio "Guggenheim efektua" Bilboko hiriaren garapenari?
2. Bideoa: Bilboko urbanismo diseinuan nabarmentzen diren hiru proiektu hauta eta azal itzazu: eraikuntzaren izena, urtea, bertako jarduera, arkitektoaren izena eta jatorria.
3. **2.dok.:** Zer da *Bizkaia Talent* erakundearen helburua? Zer argudio erabiltzen du talentuen ekarrarazteko?
4. **3.dok.:** Argazkien arabera zein jarduera nagusitzen dira zerbitzu-hiri batean?
5. **4.dok.:** Bilboko hiriaren eraldaketaren lau ezaugarri azpimarra itzazu testuan.
6. Garrantziaren arabera ezaugarriak sailka itzazu (1: garrantzitsuenak).

II. Metropolizazioa eta periurbanizazioa Bilbon

Problematika

Zer dira Bilboko hiri-eremuaren dinamika berriak?

① Bilbo Handia hiri-eremua



Bilbo Handia Satelitik ikusirik. Bilbo Handia hiri-eremua Bilbok eta inguruko 35 udalerrik osatzen dute. Bizkaiko populazioaren % 80 han bizi da. Espainiako estatuaren 6. metropoli handiena da.

② Mugimendu pendularrak eta kutsadura

Milioia inguru biztanleko hiri zalapartatsua da Bilbo Handia. Esnatzen denetik, batez ere lanegunetan, autoak eta kamioiak izaten dira (...). Hortaz, garai batean hiriko atmosferaren poluitzaile nagusia izan zen industriaren ordezkoa, gaur egun trafikoa da. Laneko ordutegiaren menpe, goizeko 7:30ean argi gorrian gelditutako gidaria urduritzen hasi da. Gaur ere berandu dabil, eta argi berdea piztu orduko klaxona jo eta motorra behartuta ziztu bizian abiatu da. Gidaria nobela bateko protagonista izan liteke, baina ez, lanera joateko Bilbo Handian sartu edo bertatik atera behar duten 350.000 langileetako bat baizik ez da (...).

2001/09/23 Joana Mendiburu. Bilboko kutsadurari buruzko artikulu baten zatia. Elhuyar.eus



Jakinazazu

Mugimendu pendularrak edo eguneroko migrazioak, etxetik lanerako eta lanetik etxerako egiten diren joan-jinak dira.




③ Aldiri periferikoan bizitzea

➤ **Urduliz** Bilbotik 15 bat km-tan dagoen Bilbo Handiko udalerria da . Biztanle gehienak (% 60k) Bilboko zentroan lan egiten dute. Hiri-polora heltzeko, autoa, tren edo metroa erabiltzen dute.



Jakinzazu

INSEEren arabera (Institut national de la statistique et des études économiques), hiri-eremua herri (udalerrri) multzo bat da, horrela osatua: 10.000 lanpostutik gorako hiri-polo bat eta baserrialdeko herriak (aldiri periurbanoan) non populazioaren % 40 hiri-poloan lan egiten duen.



Xerka ezazu!

1. **1-3. dok.:** Nola osatua da Bilbo Handia hiri-eremua? Urduliz Bilbo Handiko aldiri periurbanoaren parte dela argudia ezazu hiztegia, argazkia eta grafikoa erabiliz. Urdulizko udalerrian bizitzearen bi abantaila eta bi eragozpen idatz itzazu.
2. **4. dok.:** Bilbo metropoliaren planoan, funtzio bakoitzari lotu gune bana ingura ezazu: merkataritza, aisialdi, kultura, turismo eta hezkuntza.
3. **5. dok.:** *Bihotzean* elkarteak salatzen duen arazoa azal ezazu. Hiztegian bila ezazu: zer fenomenori dagokio *Bihotzean* elkarteak salatzen duena?
4. **Eztabaida:**
 - Rolak bana itzazu: Bihotzean elkartekoa, Herriko Etxeko ordezkaria eta apartamentu turistikoen enpresen ordezkaria.
 - Gaia: Apartamentu turistikoen kopurua ttipitu behar ote da?

4 Metropoliaren funtzioak



Jakinazazu

Metropolizazioa hiri handiek biztanleria, jarduera ekonomikoak eta garraio eta komunikazio sareak erakartzeko eta metatzeko duten joera da, inguruko lurraldeetan metropoliarekiko dependentzia harremanak sortuz bereziki. Mundializazioak metropolizazioaren dinamika bultzatzen du, aldi berean, metropolizazioak mundializazioa jasaten eta bultzatzen du ere.

Zazpikaleak

- eremuaren %16a: hotel eta pisu turistikoak
- jendeen %28a turistak

5 Bilbotarren kezak

➤ *Bihotzean* auzo elkarteak Bilbon turismo etxebizitza ugaritzearen aurkako neurriak eskatzen ditu. Etxebizitza turistikoen fenomenoak ez da berria, baina kontrolik gabeko hedapenak arazo larriak sortu ditu Bilboko auzo askotan. (...) honek alokairuen prezioen igoera neurrigabea eragiten du, eta bizilagun asko etxeak alde batera uztera behartzen ditu.

Gainera, etengabeko turisten fluxuak komunitate sentimendua hausten du, bizilagunen bizi kalitaterako ezinbestekoa.

Berria 2024ko urriaren 6a



Bihotzean auzo elkartea 2023an

III. Bilboko mugikortasuna

Problematika

Zer dira gaur egun metropoli baten mugikortasun erronkak?

① Bilbo munduarekin harremanetan



Bilboko aireportua

➤ Brest eta Finisterretik distantzia bertsuan, Europa atlantikoaren erdigunean dago Bilboko portua. Eskaintzen dituen itsas zerbitzu erregularrek mundu osoko 800 kairekin lotzen dute Bilboko portua. Europa mendebaldeko merkatura hurbiltzeko bide ezin hobea da.

👉 2024 <https://www.bilbaoport.eus>



Xerka ezazu!

1. **dok.:** Zein garraiobidek bermatzen dute Bilbo eta munduaren arteko komunikazioa?
2. Testuan azpimarra ezazu Bilboko portuak duen interes ekonomikoa.
3. Zein garraiobidek bermatzen dute Bilbo Handiko barneko komunikazioa? (**3.-6. or.**)
4. **2.-3. dok.:** Bilbo metropoliak kutsadurari buru egiteko plantan ezarri hiru proiektu edo garraio mota azal itzazu.

Ahoz adierazi:

Kasu azterketa honetan ikasia erabiliz (10 bat ezaugarri), Urdulizko biztanle baten egun bat konta ezazu.

- Laguntza: Lehenik, hamar bat ezaugarri zerrenda itzazu (garraioak, jarduerak, hiriko elementuak...)

➤ Hiri guziak bezala, Bilboko hiriak kutsaduraren ttipitzeko plangintza zorrotza plantan ezarri du: Hiria 30. Europako Batzordeak Bilbo sariztatu du horrengatik, besteak beste, autoen zirkulazioa % 30era mugatu duten lehen hirietarik baita. 2021ean, Bilboko jendeen zirkulazioaren % 60 oinezkoa da, % 24 garraio publikoetan egiten da eta % 11 norbanako autoetan.

👉 2021a *L'explorateur de Movilités*

② Bilboko mugikortasuna



Mailegu puntuak

Alokatu itzazu bizikletak egunaren edozein momentutan hiri guztian zehar banatuta dauzkagun 43 mailegu puntuetan.

③ Euskal Herriko lehen EGE (emisio gutiko eremua)



50.000 biztanletik gorako hiriek emisio gutiko eremuak sortu behar dituzte. Bilbon 2024tik martxan ezarria da.

👉 EITB 2024

IV. Perspektiban ezartzea

Problematika


Zergatik badira auto lerroak Baionako hiri sartzeetan?

Baiona

Izari ertaineko hirien artean,
Baiona erakargarriena da
2025eko sailkapenean.

 [Kazeta.eus](https://www.kazeta.eus)

① Baionako hiri-eremuaren bilakaera 1968tik 2016ra



② Baionako hiri-eremuaren hedatzea

L'Aquitaine accueille douze grandes aires urbaines sur son secteur, dont pas moins de trois grands pôles, que sont Bordeaux (capitale régionale), Bayonne et Pau. La très grande majorité de la population vit dans un espace sous influence urbaine, au sens des relations domicile-travail, sans pour autant tous habiter la ville.

L'aire de Bayonne bénéficiant de l'arrivée de nouveaux ménages en partie grâce à l'attrait du littoral (de Soustons à Hendaye) se hisse au deuxième rang régional derrière Bordeaux et devance l'aire paloise : elle enregistre la plus forte hausse relative de population et de superficie.

La périurbanisation se poursuit le long des grands axes de communication, intensifiant des linéaires urbains: elle se poursuit vers l'intérieur, au Pays Basque le long des vallées de la Nivelle et de la Nive et vers les Landes.

CESER Aquitaine, 2016ko txostena, INSEE

③ Hiri-eremuaren hedapenaren ondorioak

➤ Baionako hiri-eremuaren hedatzeak arazoak sortzen ditu, besteak beste, eguneroko auto lerroak mugimendu pendularrak direla eta, hala nola Sutarren (Angelu).

➤ 2030erako Euskal Elkargoak finkatu erronketarik bat da Trambus proiektua. 2026an Arrangotzeraino helduko da eta menturaz, Baionanzko trafikoa ttipituko du orduan.

➤ Larresoron berriki eraiki den etxegune bat, inguruko herrietani bezala.

➤ Marienia (Kanbo) laborantzako lurretan etxebizitzak eraikitzeko proiektuaren kontrako ekintza.



➤ 2025eko apirilaren 1etik EGE (Emisio Gutiko Eremua) plantan ezarriko da Baionako hiri-eremuaren gunen urbanizatuenetan.

 [Euskal Elkargoa](https://www.euskal-elkargoa.eus)



Jakinazazu

Euskal Elkargoak erronka handiak ditu: alde batetik garraio publikoen erabilaren handitzea (gaur egunko %4tik %11ra), txirrindularen ere bai (%1etik %8ra), eta bestetik, hemendik 2050era azkarki apaltzea berotegi efektuko gasen isurketak elektrikaz eta gasaz ibiltzen diren garraioen erabilera azkartuz (% 90).

Problematika

Zein dira Frantziako eta Europako hiri-eremurik handienak?

① Frantziako hiri-eremurik handienak



② Frantziako periurbanizazioa

2020an, Frantziako biztanleriaren % 93 hiri-eremuetan bizi zen. 13 milioi biztanle ditu Pariseko hiri-eremuak, eta Frantziako biztanleriaren % 20 bizi da hartan. Frantzia metropolitanoan, 41 hiri-eremuk egituratzen dute lurraldea.

Etxe-aldaketak askotan bizi-zikloaren etapei lotuak dira. Goi-mailako ikasketen edo lehen enpleguaren burutzeko, gazteek uzten dituzte hirietako erakarpenetik kanpo dauden eremu ttipiak eta landa gunek, eta 50.000 biztanletik gorako eremuetan kokatzen dira, hots, hiri-poloetan. Berantago, 30 eta 40 urte bitartean, familia bat osatzen dutenean, poloetatik ateratzen dira eta hiri-inguruko aldirietan plantatzen.

<https://www.insee>

Xerka ezazu!

1. **dok.:** Frantziako hamar hiri-eremu handienak ingura itzazu.
2. **dok.:** Frantziako hiri-eremuen garrantzia erakusten duen datu bat hauta ezazu.
3. Zer biztanle mota bizi da aldiri periurbanoan?

Urraspidea eta hautuak justifika (binaka):

Hiru dokumentu hauta itzazue erakusteko gaur egun Bilbo munduko metropolia dela, eta jende nola bizi den horrelako hiri-eremu batean.

Dokumentu bakoitzaren hautua justifika ezazue.

Zuen hautuen urraspidea azal (zuen dudak, zergatik, nola erabaki duzuen, zer irizpide segituz...).

Ezagutu behar diren hitzak:

- **Metropoli:** inguruko lurraldearen populazio, zerbitzu eta funtzio gehienak biltzen dituen hiri handia.
- **Hiri-polo:** hiriaren zentroak eta aldiriak osatzen duten unitatea.
- **Aldiri periurbano:** hiri poloan inguruan hedatzen ari den eremu urbanizatua (lehengo landa gunetan), hango biztanleen %40a hiri-poloan lan egiten dute.
- **Mugimendu pendularrak:** aldiri periurbanoan bizi direnen eguneroko migrazioak, etxetik lanerako eta lanetik etxerako joan-jinak.
- **EGE (emisio gutiko eremuak):** autoen erabilpenaren murrizketa hiri handietan, kutsaduraren ttipitzeko asmoz.
- **Gentrifikazio:** hiri zentroko auzo tradizionalen berritzea eta modernizatzea bizi-maila gora dutenen arabera (bizitegiak, merkatalguneak, leku publikoak...). Aldaketa soziala da, espazioan materialki eta sinbolikoki ageri dena.

Gaitasunak

- Dokumentu azterketa
- Ahoz adieraztea
- Geografia saileko hiztegiaren erabiltzea
- Desmartzaren eta hautuen justifikatzea

PROGRAMETAN
1. gaia
Gaurko Frantziaren
lurralde dinamikak
1- Hiri-eremuak, Frantzia
mundializatuaren
geografia berria